

AURKEZPENA

Gauzak bere neurritik horrenbeste atera gabe, Ipar Ameriketako R.W. Emerson humanistak egiten zuen bezala, honek ez zegoela ezein motatako historiari, “biografiak besterik etzeudela” baitzioen, argi eta garbi dago gaur egungo kulturaren ezaugarri nagusia, besteak beste, norberak duen eragin gero eta handiagoan datzala. Eta ez da kasualitate hutsa, ezagunak eta ezagutzeko modukoak diren irudi biografikoak elkarrekin biltzeak sortzen duen interesa, Antzinatetik datarren ekimen arrunta bada ere, burges mentalitatearen garaipenarekin batera azaltzea bere distirarik hoberenarekin. Joera hori, hain zuzen ere, gaurdaino iritsi da, nahiz eta, zuzendariak liburuaren lehenengo orrietan egokiro azaltzen duen bezala, gure artean berriki arte ez duen arrakasta handiegirik izan.

Joseba Agirreazkuenaga doktorea Euskal Herriko historialari prosopografiko nagusia dugu, bi hiztegi biografiko bikain (*Diputados generales, burocrátas y patricios de Bizkaia* eta *Parlamentarios de Vasconia*) kudeatzean erakutsi baitigu berea duen erudizioa, metodoa eta zorroztasuna eta bere lan garrantzitsuari esker gure herriaren errealitate politikoa hobeto ezagutu dezakegu, XIX. mende erabakigarri horri dagokionez. Hori dela eta, nor bera baina egokiagorik, Agustín Gómez eta Juan Antonio Morales doktoreekin batera, orain aurkezten dugun ekintza hau bere azken bururaino eramateko: *Diccionario Biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*.

Plutarkok “bizimodu paraleloak” deiturikoen multzo bat aurkituko du irakurleak liburu honetan, Eusko Ikaskuntzaren norakoak, 80 urtetako bere izatean, bideratu dituzten gizon-ema-kume horiena, alegia. Fitxa edo biografia bakoitzak, norberaren xehetasunak eman ondoren, bakoitzaren ibilbide intelektual eta akademikoaren mugarri nagusiak azaltzen dizkigu, bai eta ingurune politiko eta sozialaren isla ere, guzti hori Eusko Ikaskuntzan izandako jardueraren eta, dagokionean, egindako argitalpenen sarrera gisa.

Oker nabarmena litzateke hiztegi hau, euskal komunitate zientifikoan dauden pertsona ospetsu batzuen ezaguera curricularra jakiteko ekarpen soila denik kontsideratzea. Iruditzen zait, gainera, orrialde hauetan Eusko Ikaskuntzako atal eraginkor eta eredugarri bat mamitzen dela, gure bururik onenatariko askok eskaini duten ahalegin oparoari esker izan baita Elkartea eraikia, sarritan inolako saririk gabe, herriarekiko eta kulturarekiko maitasun hutsez alegia. Laburbilduz, biografia hauek lanean jarraitzera bultzatu behar gaituen eredu dira. Bakarka. Obra kolektiboa taxutzeko, hala ere.

Juan José Goiriena de Gandarias
Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria